
Aizpea de Atxa

Aunque nunca he cazado, creo que hay veces que mientras grabo, mi actitud se asemeja a la que una cazadora aparentemente tiene: observo a través de la cámara con una atención tan intensa que parezco atrapar y arrastrar hacía mí aquello que miro.
Dentro de mí en cambio, ocurre todo lo contrario:
Cuanto más miro algo, más dentro de ella estoy y en ese examinar y en esa espera, dejo de ser yo para ser yo-en ello. Algunas de las cosas que ahora mismo sé son que
me encanta el monte.
Subir, bajar corriendo y
mirar al cielo, a los lados, al paisaje desde arriba.

Flotar en el mar
boca abajo
con las gafas de buceo puestas
respirando por el tubo de snorkel.

Observar el límite, a vezces definido, otras difuso entre el cielo y el mar. Y las nubes.

Trabajar en la terraza de nuestra casa de Mutriku y, de vez en cuando, ampliar la mirada en este límite variable.

Hace poco entendí que hacemos del mar un objeto de personalidad independiente entendiéndolo como una superficie acuática horizontal. A mí se me hace difícil pensar en él como un objeto solitario. Al observarlos he comprendido que, sin atmosfera (y sin rocas, sin tierra, sin fauna, sin flora), el mar no podría ser. Entiendo el mar como un conjunto de factores en constante relación una secuencia de movimientos realizados por actores
un contexto
una situación de constante fluidez.

Es una esfera en la que las moléculas de agua viajan en todas las direcciones
en todos sus estados posibles.

Sekula ehizan ibilia ez banaiz ere, batzuetan, grabatzen ari naizen bitartean, nire jarrera ehiztari batek ustez duen jarreraren antzekoa dela uste dut: kameraren bidez behatzen dut, eta hainbesteko arreta jartzen dut, ezen ematen baitu neuregana dakardala eta harrapatzen dudala begiratzen dudana. Nire barnean, berriz, kontrakoa gertatzen da: gauza bati zenbat eta gehiago begiratu, orduan eta barrurago nago gauza horretan, eta miaketa eta itxaronaldi horretan neu izateari utzi eta 'ni horren barnean' naiz.

Orain gauza bat badakit, besteak beste, mendia maite dudala. Igotzea, korrika jaistea eta zeruari begiratzea, alboetara, paisaiari goialdetik.

Itsasoan ahuspez flotatzea urpeko betaurrekoak jantzita, snorkeleko tutuaz arnasa hartzen.

Mugari behatzea; muga zehatzari eta, beste batzuetan, zeruaren eta itsasoaren arteko muga lausoari. Eta hodeiei.

Mutrikuko etxeko terrazan lan egitea eta, batzuetan, begirada zabaltzea, muga aldakor horretan.

Duela gutxi ulertu nuen itsasoa nortasun independenteko objektu bilakatu ohi dugula, uretako azalera horizontal gisa ulertzen dugula. Niri zaila iruditzen zait itsasoa objektu bakarti gisa pentsatzea. Hari behatuz ulertu dut atmosferarik gabe (eta haitzik, lurrik, faunarik eta florarik gabe) itsasoa ezingo zatekeela izan. Itsasoa elkarrekin etengabe harremanean dauden faktore batzuen multzoa izango balitz bezala ulertzen dut, eragileek eginiko mugimenduen sekuentzia bat bezala, testuinguru bat, etengabe ibilian diharduen egoera bat.

Esfera horretan, ur-molekulek norabide guztietan bidaiatzen dute, egoera posible guztietan.











<u>Pamplona, 1998</u>

Graduada en Arte por la UPV/EHU, actualmente cursa el máster propio en Cinematográfica y Audiovisual de la escuela de cine Elias Querejeta Zine Eskola mientras completa su formación en cursos y talleres fuera de la academia. Recibió el Premio Joven Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gazte Saria en 2019.

<u>Iruñea, 1998</u>

Artean graduatua da EHUn, eta Sorkuntza Zinematografikoa eta Ikus-entzunezko berezko masterra egiten ari da egun Elias Querejeta Zine Eskolan. Aldi berean, akademiatik kanpo egiten dituen ikastaro eta tailerren bidez osatzen ari da prestakuntza. Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gazte Saria jaso zuen, 2019an.

Huarte

ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO